

24. ALDIZKARIA - 2017ko otsailaren 3a

Barañaingo Udalak, 2016ko urriaren 27an egin osoko bilkura arruntean, legez ezarritako quoruma zuela, erabaki zuen hasiera batean onestea Adinekoen Kontseilu Sektorialaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendu berria.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan xedatuari jarraikiz, erabaki hori 2016ko 216. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 9an, baita Barañaingo Udalaren ediktu oholean ere.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu foru legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, erregelamendua behin betiko onetsizat jotzen da, eta haren testu osoa argitaratuko da, behar diren ondorioak izan ditzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da aipatu agindua betez, eta ohartarazten ezen honako erabaki honen aurka –xedapen administratibo orokorra baita– ezin dela administrazio bidean errekurtsorik paratu; hortaz, behin betiko onespen honen aurka ondoko bideren bat erabiltzen ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2016ko abenduaren 28an.–Alkate udalburua, Oihane Indakoetxea Barberia.

ADINEKOEN KONTSEILU SEKTORIALAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN GAINEKO ERREGELAMENDUA.

AURKIBIDEA:

- ZIOEN AZALPENA.
- LEGE OINARRIA.
- KAPITULUA.–Izaera eta xedeak.
- KAPITULUA.–Eginkizunak.
- KAPITULUA.–Egitura eta osaera.
- KAPITULUA.–Antolaketa eta funtzionamendua.
- AZKEN XEDAPENETAN LEHENA.
- AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA.–Indarra hartzea.

ZIOEN AZALPENA

Prozesuak erraztea eta herritarrek parte hartzeko bideak sortzea gizarte politika aurrerazaleen etengabeko erreferentea da, politika horiek gizarte kohesioan aurrera egitea eta pertsonen bizi kalitatea hobetzea bilatzen baitute.

Bestalde, parte-hartzea garatuz, tokiko demokraziaren oinarritzko beste balio batzuk bultzatzen laguntzen da. Hala, kontu-ematea bultzatzen da eta, beraz, parte-hartze zabal, askotariko, bidezko eta orekatua herritarrek duten kontrol tresna boteretsuenetakoa da; horregatik, kudeaketa publikoan gardentasuna bultzatzeko estimulu eraginkorra da. Parte-hartzeak gobernuen harmena errazten du, zeren eta tokiko herritarren eta agintarien arteko trukeek laguntzen baitute politika eta zerbitzu publikoak herritarren lehentasunetara hobeki egokitzen. Are gehiago, parte-hartzea eskola demokratiko gisa hartu izan dute bai agintariek bai herritarrek.

XXI. mendean adineko biztanleak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira, egoera soziodemografikoak, ekonomikoak, kulturalak, familiakoak eta lan arlokoak direla-eta; gizarte garatuetako aldaketa garrantzitsuenetako bat da hori.

Adinekoek gizartean parte hartzea garrantzitsua da, balioa ematen zaielako beraien ezagupenei, esperientziei eta baloreei, gizarte orekatu baten bilakaeran eta garapenean baliotsuak, garrantzizkoak eta ezinbestekoak diren erreferente bihurtuz. Eta, orobat, adinekoek gizartean parte hartzea garrantzitsua da zahartze prozesuan dagoen mundu batean gaudelako; eta mundu horretan, zorionez, urte gehiago bizi gara, urte horietan kalitate handiagoarekin bizi nahi dugu eta premiazkoa da herrialdeek politikak eratzea, egoera hau lorpen sozial baten moduan eraiki dadin.

Adinekoek gure komunitateak hobetzen lagun dezakete, eta ezin dira bazterrean gelditu beraiekin lotura zuzena duten politikak diseinatzen direnean, politika horiek oraina zehaztu eta etorkizuna antolatzen baitute.

Gizartean parte hartzeko bideak proposatu eta finkatzea eta horien bidez komunitate bateko adinekoek beren proposamen, azterketa eta eskaerak aurkeztea garrantzizkoa da, horri esker komunitate batean urte eta esperientzia gehien duten pertsonen erreferente sozial moduan duten zeregina aintzat hartu, ikusgai jarri eta antolatu egiten ahal baita.

Zalantzarik gabe, elkarteen mugimenduaren zeregina erabakigarria izaten ari da prozesu honetan eta, horregatik, garrantzitsua da antolamendua izatea, non elkarteen mugimenduak esateko duena entzun eta aintzat hartzen ahalko den, herriko kasuan kasuko erantzukizun eta eskumen esparruetan.

Horrenbestez, Barañaingo Adinekoen Kontseilu Sektoriala sortzea, kontsulta organo gisa, aurrerapauso handia da adinekoek gizartean parte hartzeko eta horiek kontuan hartzeko. Halaber, gizartearen eskura jarriko da adinekoek duten esperientzia, eta parte-hartzea bultzatuko da, betiere adinekoen bizi kalitatea sustatzera eta gizarte ongizatea hobetzera bideratutako proiektuak gehitze aldera.

LEGE OINARRIA

A. 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.

Aipatu lege horrek bere II. tituluko II. kapituluan, ahalmen eta eskumenen mugaketa, 44.18 artikulua, ezartzen du Nafarroak eskumen hauek dituela, besteak beste:

–Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

B. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Legearen lehenbiziko tituluan, 1. artikuluan, xedatzen da udalerrriak direla Estatuaren lurralde antolamenduko oinarrizko entitateak eta herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko bide hurbilenak, eta bertan instituzionalizatzen eta kudeatzen direla, autonomiarekin, giza-taldeen interesak. Kasu honetan adinekoak izanen genituzke giza-talde horietako bat.

4. artikuluko A) puntuan erregelamenduak egiteko eta autoantolatzeke ahalmena ematen zaio udalerriri.

IV. kapituluan (herritarren parte-hartzea eta informazioa), 69. artikulua hurrengo hau xedatzen du:

“Toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emanen dute beren jarduerari buruz, eta herritarrek herriko gorabeheretan parte hartzeko bidea erakutsiko. Beren burua antolatzeke ahalmena erabiliz, parte-hartze modu, baliabide eta prozedurek ezin izanen dituzte legeak araututako ordezkari organoak dagozkien erabakitzeke ahalmenak eragotzi”.

C. 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.

IV. tituluan (Lurraldeko toki erakundearen antolaketa osagarria), lehenbiziko kapituluan, 6. sekzioan (organo osagarriak, kontseilu sektorialak, 130. puntua), aipatzen da kontseilu sektorialak ezarri behar direla, herritarren eta herritarren elkarrekin parte-hartzea bideratzeko udal aferetan. Txosten eta hala badagokio proposamen eginkizunak izanen ditu soilik, kontseilu bakoitzari dagozkion jarduerak alorrei buruzko udal ekimenekin zerikusia dutenak.

Kontseilu sektorialen osaera, antolaketa eta jardun eremua kasuan kasuko osoko bilkuretan ezarriko dira.

Esparru honetan kokatzen da Barañaingo Adinekoen Kontseilu Sektoriala, udal politikaren jardunetik sortutako organo gisa, adinekoen eskubideen alde aritzeko, eta adinekoen eskubideen alde lan egiten duten elkarrekin eta kontseiluko ordezkari politikoen parte-hartzea izanen du; izan ere, udalek ahalmena dute beren burua antolatu eta kontseilu hori sortzeko, ikuspegi juridikotik.

I. KAPITULUA. IZAERA ETA XEDEAK

1. artikulua.

1.–Barañaingo Adinekoen Kontseilu Sektoriala sortu da, adinekoek parte hartzeko eta hirugarren adinekoen inguruko entitate eta erakundeek parte hartzeko foroa izan dadin. Herritarrek parte hartzeko organo hori kontsultarako izanen da, eta adinekoen arretaren arloan agertzen ari diren behar berrien aurrean truke eta bateratze lana eta konponbideak sustatuko ditu.

2.–Kontseilua herriko organo osagarritzat joko da, eta adinekoen taldea ordezkatzeko du, espresuki.

II. KAPITULUA. EGINKIZUNAK

2. artikulua.

1.–Kontseilu Sektorialak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Adinekoen solaskidea izatea Udalean eta edozein erakunde publiko edo pribatutan, adineko guztien parte-hartze aktiboa erraztearren esparru sozial, politiko eta kulturean.

b) Kontseiluarentzat interesa duten gaiei buruzko informazioa lortzea, aldez aurretik eskaera arrazoitua eginda.

c) Adinekoen arretaren arloan gauzatzen den udal kudeaketaren jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egitea.

d) Adineko guztien parte-hartze aktiboa erraztea arlo sozial, politiko eta kulturean, eta taldearen baliozko solaskide gisa jotzea botere publikoen aurrean.

e) Adinekoen eta adinekoentzako gizarte boluntariorza sustatzeko jarduketak eta neurriak bultzatzea, baita belaunaldien arteko elkartasuna ere.

f) Eskualde, herrialde, Estatu eta nazioarte mailan aritzen diren antzeko beste organo batzuekin harremanak izatea eta laguntza ematea, esperientziak eta ekimenak hedatzeari begira.

g) Edozein pertsonari edo entitateri unean-unean aholkua eskatzea, egokitzat jotzen diren alderdiei buruz.

h) Hirugarren adinekoen buruzko jarduketa proposamenak egin eta bidaltzea, hala behar denean, Barañaingo Udalari eta jarduketa esparru honekin lotutako erakunde, instituzio eta entitate publiko eta pribatuei.

h) Adinekoen egoerarekin eta bizi kalitatearekin zerikusia duten alderdiei buruzko azterlan eta ikerlanak egin daitezela proposatzea, beharrezkoa dela ikusten denean.

i) Udalari ekimenak, proposamenak edo iradokizunak aurkeztea, kasuan kasuko udal batzordeetan eztabaidatzeko.

j) Adinekoen inguruan abiatuta dauden edo oraindik proiektu diren araudi, programa eta baliabideei buruzko informazio eta zabalkunde ekintzak sustatzea eta/edo gauzatzea.

2.–Barañaingo Udalak Adinekoen Kontseilu Sektorialari behar den informazioa emanen dio, esleitu zaizkion eginkizunak betetzea bermatzeko.

3.–Kontseiluak autonomia izanen du kontsulta, proposamen, informazio eta aholkularitza eginkizunak betetzean; hain zuzen ere, Barañaingo Udalean adinekoen inguruko zerbitzuak eta gizarte politikako neurriak esleituak dituzten organoei dagokienez.

III. KAPITULUA. EGITURA ETA OSAERA

3. artikulua.

1.–Honako hauek osatuko dute Kontseilu Sektoriala:

a) Kontseiluburua.

b) Kontseilukideak, hurrengo puntuetan ezarritakoarekin bat.

2.–Alkatea edo hark eskuordetzen duena izanen da kontseiluburua.

3.–Kontseilukideak honela hautatuko dira:

a) Sei kide gehienez, Barañainen legez eratu eta zentsatutako adinekoen elkarte bakoitza edo elkarteen batasun bakoitza ordezkatzuz.

b) Hiru kide gehienez, Kontseiluaren jardueraren arloarekin lotuta dauden beste erakunde batzuetakoak.

c) Udalean ordezkaturiko talde politikoen ordezkari bana, horretarako izendatuak.

d) Gizarte Zerbitzuetako, Berdintasunerako, Kultura arteko Komunikaziorako eta Adinduen Batzordeko burua.

Kontselukide titularrak kanpoan edo eri daudenean edo justifikatzen diren gainerako kasuetan, ordezko kideak joanen dira haien orde, horrelakorik baldin badago.

4.–Gizarte Zerbitzuetako, Berdintasunerako, Kultura arteko Komunikaziorako eta Adinduen Alorreko gizarte-langile bat izanen da Kontseiluko idazkaria, eta hitza izanen du baina botorik ez.

4. artikulua.

1.–Kontseiluko kideen izendapena, norberak duen kargua dela medio direnena izan ezik, kontseiluburuak eginen du, aurreko artikuluan aipatzen diren entitateen proposamena eta gero, halakorik bada.

2.–Hirugarren adinekoen inguruko elkarteak, entitateak eta erakundeak ordezkatzeko dituzten kideen kargualdiak udal agintaldi bakoitzak bezainbeste iraunen du.

3.–Orobat, arrazoi hauetakoren batengatik utziko zaio kontseilukide izateari:

a) Kontseiluko kidea hiltzean edo epaileek epai irmo baten bidez desgaikuntza ezartzen diotenean.

b) Berariaz uko egitean.

c) Kargualdia bukatzen denean. Dena dela, kide berriak karguaz jabetu arte, aurreko kideek beren eginkizun guzti-guztiak betetzen segituko dute.

d) Epai irmo baten bidez, bigarren ondorio gisa lanbide batean edo politikan jarduteko desgaikuntza dakarren zigor bat ezartzen denean.

e) Kontseiluan aritzeko ordezkaritza galtzean.

f) Erregelamendu honetan ezarritako beste baldintzetakoren bat betetzen ez duenean.

4.–Postu hutsak betetzeko, erregelamendu honetan izendapenak egiteko adierazitako prozedura berbera erabiliko da.

Kargualdia bukatzeagatik ez beste edozein arrazoiengatik uzten bada kargua, sartzen den kide berria Kontseilua uzten duen kidearen kargualdia bukatu arte arituko da.

IV. KAPITULUA. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

5. artikulua.

1.–Kontseiluak urtean bi aldiz behintzat egingen du bilkura arrunta. Bilkura bereziak egiten ahalko dira kontseiluburuak dei egiten badu, norberaren ekimenez edo Kontseiluko kideen heren batek eskaturik.

Ohiz kanpoko izaeraz, Kontseiluak bilkura arruntean hartutako erabakiaren bidez, herritarrendako bilkura irekiak deitzen ahalko dira, eta horretarako bide egokiak erabili eta eguneko gai zerrenda ezarriko da.

2.–Kontseiluaren eraketa baliozkoa izateko, kontseiluburuak eta idazkariak edo haien ordezkoeak bertan egon beharko dute. Horiez gainera, lehenbiziko deialdian kideen erdiek gehi batek egon beharko dute gutxienez, eta bigarren deialdian kideen herenek.

3.–Bilkurak egiteko deialdietan gai zerrenda adierazi beharko da. Kontseiluko kideek bilkura eguna baino zazpi egun lehenago gutxienez jaso beharko dute deialdia. Presako kasuetan, epe hori berrogeita zortzi ordukoa izan daiteke.

4.–Bertaratzen diren kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira erabakiak eta horien arrazoiak emanen dira. Adinekoen Kontseilu Sektorialari atxikitako elkarte edo talde politiko bakoitzak boto bat izanen du.

5.–Bilkura guztien akta egin beharko da, hartutako erabakien berri emanen duena. Kontseiluko kide interesdunak eskatuta, hartutako erabakiaren kontra emandako botoak jasotzen ahalko dira aktan, baita abstentzioak ere, eta botoa azaldu edo justifikatzeko arrazoiak.

Aktaren kopia bat, dagozkion agiriekin batera, Barañaingo Udalarari igorriko zaio (dagozkion zinegotzigoari), Kontseiluan hartutako erabakien jarraipena ahalbideratzeko.

6. artikulua.

Barañaingo Adinekoen Kontseilu Sektorialak antolaketarako bere erregelamendua eta bere funtzionamendu arauak ezar ditzake, araudi orokorrean eta erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat.

7. artikulua.

Kontseiluko buruaren eginkizunak hauek dira:

- a) Kontseiluaren ordezkariak bere gain izan eta dagozkion ekintzak gauzatea.
- b) Bilkura arrunt eta berezietarako dei egitea eta eguneko gai zerrenda ezartzea.
- c) Bilkuretan buru izatea, eztabaidak moderatzea eta, aski justifikatuta dagoenean, haiek bertan behera uztea.
- d) Aktak ikus-onestea.
- e) Kontseiluko buru gisa dagozkion gainerako eginkizunak betetzea.

8. artikulua.

Kontseiluko kideek eginkizun eta eskubide hauek izanen dituzte:

- a) Kontseiluaren bilkuretan hitzez parte hartzea, boto eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea, bai eta botoaren zentzua eta haren arrazoiak azaltzea ere.
- b) Kontseiluan aztertzen diren gaiei buruzko informazioa izatea.
- c) Kontseiluaren bilkura berezia eskatzea.
- d) Proposamen edo iradokizunak aurkeztea eguneko gai zerrendan sartzeko, baita osoko bilkuran erabakiak hartzeko edo gai zehatz bat aztertzeko ere.
- e) Aldez aurretik jasotzea, ezartzen den epean, deialdia eta bilkuretako gai zerrenda, eta beren eskura izatea agertzen diren gaiei buruzko agiriak eta informazioa, bai eta aurreko bilkurako akta ere.
- f) Galderak eta eskaerak egitea.
- g) Karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

9. artikulua.

Idazkariak eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Kontseiluaren zerbitzu administratibo eta teknikoak zuzendu eta koordinatzea.
- b) Kontseiluan hitza duela parte hartzea, baina botorik gabe.

c) Kontseiluaren bilkuretarako dei egitea, buruak hala aginduta, eta kideentzako zitazioak egitea.

d) Kontseiluaren bilkuren aktak prestatu, idatzi eta baimentzea, buruak ikus-onetsita.

10. artikulua.

Kontseiluak bilkuran aztertzen diren gaiei buruzko espezialistak gonbida ditzake bilkuretara, beren aholkuek xedeak betetzen lagundu ahal izateko. Aholkulari tekniko horiek hitza izanen dute baina botorik ez.

11. artikulua.

Kontseiluko kideek betebeharrak izanen dituzte:

a) Kontseiluaren bilkuretara joatea.

b) Isiltasunez eta zuhurtasunez jokatzeko aztertzen diren gaien izaerak horixe eskatzen duenean eta, bereziki, norberaren eta familiaren ohorea eta intimitatea eta norberaren irudia ukitzen direnean.

c) Erregelamendu honen eta hori garatzeko onesten diren arau eta jarraibideen arabera jardutea.

12. artikulua.

Erregelamendu honetan ezarritako xedapenek arautuko dute Kontseilua. Erregelamenduak aurreikusten ez duen orotan, informazio batzordeetarako ezarri den funtzionamendu araubidea aplikatuko da osagarri gisa.

Azken xedapenetan lehena.—Barañaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Berdintasunerako, Kultura arteko Komunikaziorako eta Adinduen Alorrak Kontseiluaren funtzionamendu erregelamendua betetzen den begiratuko du.

Azken xedapenetan bigarrena.—Erregelamendu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.